



## **ESKOLAKO OHARRAK**

### **Ordutegi aldaketa**

Orain dela bi urte 2018/19 ikasturtean eskolako ordutegia aldatu genuen eta aldaketa hori 2019/2020 ikasturtean gauzatu genuen. Eskolako klaustroak aldaketa honen inguruan egindako balorazioa jakinarazi nahi dizuegu.

Egunerokotasunean eskola osoan 14:45-15:00etara irakurketa sistematizatzea ekarri du. Lehen Hezkuntzan zein Haur Hezkuntzan irakurketarekin erlazioa duten jarduerak egiten dira (irakurketa kalean, irakasleak irakurtzen die liburu baten pasarteak egunero, bakarkako irakurketa, ikasleek kontatzen dute ipuina...). Jarduera sistematizatzeak ikasleei segurtasuna emateaz gain, autonomia ere ematen die eta ikasleak hobeto kokatzen dira ikasketa prozesuan. Gelara iritsi bezain pronto badakite liburua hartu eta irakurtzen jarri behar dutela, ondorioz arratsaldea giro lasai batean hasteko aukera ematearekin batera, ikasleekin jardun eta ekintza gehiago egin daitezkeela ikusi dugu. Klaustrokideen aldetik onurak pedagogikoak besterik ez dira ikusten.

Hala ere zuen balorazioa jakitea ezinbestekoa iruditzen zaigunez, joan den astean bidalitako galdetegia bete ez zenutenek betetzea eskertuko genizueke. Tartetxo bat besterik ez da izango. Zuen @elizalde.eus helbide elektronikoan jaso zenuten.

Adeitasunez

Elizalde Herri Eskolako Klaustroa.




### **2021/2022 IKASTURTEA**

Hilabete eta erdi falta da 2020/2021 ikasturtea bukatzeko, hori dela eta, 2021/2022 ikasturtea prestatzen hasi behar dugu. Horregatik, datorren astean, garraio eta jangelako aurreikuspenak egiteko inkesta telematikoa zabalduko dugu. Bete ezazue, mesedez.



## **COVID19**

Gauden pandemia egoeran, ikasleen PCR frogen emaitza positiboa denean eskolako zuzendaritzari edo ikasleen tutoreei jakinaraztea eskatzen dizuegu, mesedez. Honela guk gure barne protokoloa ahalik eta azkarren martxan jar dezagun.



## **LH5KO eta LH6KO GURASOENTZAT FORMAZIO SAIOA**

Hurrengo maiatzaren 10ean, astelehenean, arratsaldeko 16:45etan, eskolako jangelan "MUGIKORRAK, INTERNET ETA GAZTEAK" izeneko ikastaroa eskainiko dugu maila horietako gurasoentzat Guraso Elkartearen laguntzaz. Aurreko astean, LH5ko eta LH6ko ikasleekin lanean eta gaia sakontzen arituko da formazioa eskaintzen duen pertsona. Bertaratzea eskertuko genizueke gaia oso interesgarria baita.

## **APARKALEKUA**

Familia guztiei gogorarazi nahi dizuegu, eskolako aparkalekua eskolako langileek soilik erabili dezaketela. Familia batzuek oraindik errespetatzen ez dutenez, Udaltzainak jakinaren gainean jarriko ditugu modu desegokian erabiltzen den bakoitzean.



## **ERREFERENTE FEMINISTAK**

### **Dorothy Vaughan**

Dorothy Johnson Vaughan (Missouri, 1910eko irailaren 20a - Missouri, 2008ko azaroaren 10a) NASAn lan egin zuen matematikari afroamerikar bat izan zen. West Computing taldean nabarmendu zen, Analisisiko Dibisioan. Konputazioan ere asko nabarmendu zen, FORTRAN programazio-lengoaian aditu bihurtu baitzen. Aipagarria izan zen Scout proiektuan, espaziora sateliteak jaurtitzeko proiektuan hain zuzen ere, ezinbesteko langilea izan zela. NASAtik 1971n erretiratu zen arte. NASako lehenengo ikuskatzaile eta manager afroamerikarra izan zen NASAn sartu aurretik, matematika irakasle bezala aritu zen. Bere istorioa, Ierro hauetatik gomendatzen dugun "figura ezkutuak" filmean kontatzen da.



